

# Apokalipsi nuklearra abiatuko zuten hitzak prest zeuzkan Kennedyk

Mundua hondamenditik uste baino gertuago egon zela erakusten dute Kubako Misilen Kriaren 50. urteurrenean argitaratu diren dokumentuek. John Fitzgerald Kennedyk prest zeukan irlaren inbasioa iragartzeko diskurtsoa, bere anaiaren artxiboko materialen arabera.

| GORKA BEREZIARTUA |

“HERRIKIDEOK, bihotza esturirik, eta egin nuen zina betetzeko beharrez agindu ditut Kubako lurrian pilatutako arma nuklearrak suntsitzeko operazio militarrek, arma konbentzionalak bakarrik erabiliz –eta Estatu Batuetako Aire Armadak agindua betetu–” John Fitzgerald Kennedyk inoiz irakurri ez zituen hitzak dira. Kubaren erabateko inbasioa iragartzeko diskurtsoa prest zeukan AEBetako presidentek 1962ko urrian, Misilen Kriaren 50. urteurrenarekin bat eginez publiko egin diren dokumentuek erakusten dutenez.

Robert Kennedyren artxiboetako edukiak dira publiko egin direnak. Horien arabera, lerro gorri zehatza jarri zuen John F. Kennedyk inbasioa agindu aurretik: krisiak iraun zuen 13 egunetan misil nuklear gehiago zeramatzen ontzi sobie-



Mende erdi igarota egin dituzte publiko dokumentuak.

tarrak Kubara iristen badira, eraso. Horrelako erabaki bat III. Mundu Gerraren hasiera izango zela idatzi du Graham Allison Harvardeko irakasleak *Christian Science Monitor* astekarian. “AEBek aire-erasoa hasi eta Kuba inbaditu izan balute –dio Allisonek–, agintzen ari zen komandante sobietarrak ia

segurtasun osoz 100 arma nuklear taktikorekin erantzungo zukeen –eta JFK-k ez zekien irlan arma nuklear taktiko horiek bazeudenik ere–. AEBak erantzutera behartuta sentituko ziren, apokalipsi nuklearra piztuz”.

Krisia konpondu zen, akordio publikoak eta ultimatum pribatuak uztartu zituen sokatira diplomatikoaren bidez. “13 egun horietatik zenbat eta urrutirago, orduan eta zailagoa da jende askorentzat sinestea Kubako edo Turkiako misilen inguruko liskar batek AEBak eta Sobiet Batasuna gerra nuklearre- ra bultzatu zitzakeela” Allisonen ustez. Baina Robert Kennedyren paperek erakusten dute zergatik bat egiten duten historialari askok, egun haiek “historian izan den unerik arriskuetsuena” gisa deskribatzerako orduan. ■



**inguru**  
ABENTURA.COM

info@inguruabentura.com - 635 748 948

Descenso de Cañones, Espeleología, Puenting, Multiaventuras, Despedidas de solter@ y mucho mas...

Arroila Jaitsierak, Espeleología, Zubi saltoa, Multiabenturak, Ezkon aurreko agurrak eta askoz gehiago...